


# 2.



**GIDA PRAKTIKOAK:**  
erosketa publiko arduratsua

---

## **BANKU- -ZERBITZUEN ETA FINANTZA- -PRODUKTUEN KONTRATAZIOA**



**GIDA PRAKTIKOAK**

erosketa publiko arduratsua

---

**BANKU-  
-ZERBITZUEN  
ETA FINANTZA-  
-PRODUKTUEN  
KONTRATAZIOA**

---

Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Bizkaiko Foru Aldundiak kofinantzatutako “*Merkatu Soziala, Erosketa Publiko arduratsua eta Kontsumo arduratsua*” proiektuaren barruan dago



---

*Gida praktikoa: erosketa publiko arduratsua*  
*2. Banku-zerbitzuen eta finantza-produktuen kontratazioa*

Egilea: Santiago Lesmes Zabalegui

ISBN:

Lege-gordailua:

Diseinua eta maketazioa: Labox Marketing y Comunicación

Itzulpena: Éditra S.C.

Inprimaketa: Eusko Printing Service S.L.

#### **REAS Euskadi**

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea

Red de Economía Alternativa y Solidaria

EKONOPOLO · Ekonomia Sozial eta Solidarioko Poloa

Harrobi Plaza 4, 2a · 48003 Bilbo · Tel.: 944 160 566

reaseuskadi@reaseuskadi.net · @REASEuskadi

www.reaseuskadi.eus



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 (CC BY-NC-SA 4.0)

Lan hau nahi bezala kopianu, banatu eta zabaldu daiteke, egilea aipatu eta xede ez-komertziale-tarako erabiliz gero. Lan hau aldatuz gero edo lan honetatik abiatuta besterik sortuz gero, honek daukan lizentzia berarekin baino ezin izango da banatu.

Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0>.

---

# Edukia

<b>AURKEZPENA.....</b>	<b>04</b>
<b>1. FINANTZA-ZERBITZUEN KONTRATUEN KATEGORIZAZIOA.....</b>	<b>06</b>
Banku- edo finantza-produktu eta -zerbitzuen kategorizazio juridikoa	<b>06</b>
Gidaren ikuspegia	<b>08</b>
Kontratazio Publiko Arduratsua: legezko betebeharra	<b>09</b>
<b>2. KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA KONTRATAZIO ESPEDIENTEA .....</b>	<b>10</b>
Kontratuaren objektua	<b>10</b>
Bete beharreko premiak eta espedientea justifikatzea	<b>12</b>
<b>3. FINANTZA-ZERBITZU EDO PRODUKTU ARDURATSUEN SORTA     BAT EDO BATZUK EZARTZEA.....</b>	<b>14</b>
<b>4. ESLEIPEN IRIZPIDEAK.....</b>	<b>18</b>
<b>5. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK.....</b>	<b>23</b>
<b>6. KONTROLATZEKO ETA EGIAZTATZEKO SISTEMAK .....</b>	<b>27</b>
Gardentasun eta justizia fiskalari buruzko klausularen egiaztatzailea	<b>29</b>
Etxegabetzeen aurkako klausularen egiaztatzailea	<b>30</b>
Banku etikoko klausularen egiaztatzailea	<b>31</b>
Erantzukizun soziala ziurtatzeko klausularen egiaztatzailea	<b>31</b>
Gizarte- edo ingurumen-erantzukizuneko klausulen egiaztatzaileak	<b>32</b>

# Aurkezpena

Gida honen helburua da Administrazio publikoek banku-, finantza- eta mailegu-zerbitzuak kontratatzean irizpide etikoak, sozialak, ingurumenekoak eta erantzukizun sozial eta fiskalekoak sar ditzaten proposatzea eta erraztea.

Bere oihartzuna ulertzeko, finantza sektorearen garrantzia eta eragina azpimarratu behar ditugu:

› Oxfamek eta Fair Finance Guide International delakoak egindako ikerketa baten arabera, Europako 20 banku nagusiek lortutako irabazien % 26 zerga paradisuak dira.

› Morningstar enpresaren datuen arabera, inbertsio funtsen % 10 inguruk armamentu, joko, alkohol eta tabako negozioetan parte hartzen dute, baita legez kanpoko negozioak edo Gobernu diktatorialak finantzatzen ere. Txanponaren aurkiak (literalki zein irudizko adieran) inbertsio funts sozialki arduratsuak (ISA) erakusten ditu ingurumen irizpideekin (karbono emisioak, klima aldaketan ondorioak, kutsadura, hondakinak ezabatzea, energia berriztagarriak eta baliabideak agortzea), irizpide sozialekin (hornidura katea, diskriminazioa, ekarpen politikoak, aniztasuna, giza eskubideak eta komunitate harremanak) eta gobernu oneko irizpideekin (zuzendaritza batzordeen osaera paritarioa edota independentea, akziodunen eskubideak, etab.).

› 2018. urtean 59.671 etxegabetze egin ziren Espainiako estatuan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) emandako datuen arabera; horietatik 18.945 (% 31,7) hipoteka betearazteak izan ziren. Euskadin 1.191 etxegabetze egon ziren 2018an, eta horietatik 235 hipoteka betearazteko prozeduren ondorio izan ziren.

Gure ustez, kontsumo arduratsua eta etikoa ez da soilik kontsumo ondasunetan egin behar, baizik eta edozein erosketan, are gehiago diru publikoarekin egiten denean eta, nolabait, finantza produktuen hornidurak eta zerbitzuak kanpoan gera daitezkeenean.

Alde horretatik, Administrazio publikoek finantza produktu jasangarrien birtartez gizarte-kohesioa eta ingurumena zaintzen lagunduko duten finantza erakundeen alde egin behar dute, bai eta diruaren eta haren inbertsio bideen erabilera arduratsu eta etikoaren alde ere. Lagundu behar da eta koherentzia erakutsi produktu, entitate eta proiektu garden, arduratsu, etiko eta solidarioak kontratatuz eta horietan inbertituz, planetaren eta bere biztanleen ongizateaz arduratzen direnak.

Ondorioz, eta finantza sektorearen joera garrantzitsuak kontuan hartuta, Administrazio publikoek beren inbertsio tresnak, maileguak edo kredituak, banku gordailuak edo finantza zerbitzuak kontratatzeke orduan erantzukizun sozialeko, ingurumeneko eta fiskaleko irizpideak sartzea proposatzen dugu.

Gida honetan ikusiko dugunez, irizpide horiek sartzea legezkoa da erabat eta berme osoarekin egin daiteke eta, lan hori errazteko, prozedura arautu bat, azterketa juridiko bat eta klausula tekniko, objektibo eta egiaztagarriak aurkeztu nahi ditugu.

Ondorengo proposamenek proposatzen dute irizpide etikoak, sozialak, ingurumenekoak, erantzukizun sozialekoak eta fiskalekoak txertatzea,

edozein Administrazio publikoren kontratazio-prozeduraren fase edo klausula desberdinetan sartuz, eskema honen arabera:

1. Finantza-produktu eta -zerbitzuen kontratuen kategorizazio juridikoa.
2. Kontratuaren objektua. Bete beharreko premiak eta espedientea justifikatzea.
3. Sortak ezartzea.
4. Esleipen irizpideak.
5. Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak.
6. Kontrolatzeko eta egiaztatzeke sistemak.

## FINANTZA-PRODUKTU ETA -ZERBITZU ARDURATSUEN KONTRATAZIO PUBLIKOA

<p><b>1</b></p>  <p>KONTRATUAREN OBJEKTUAREN DESKRIBAPENA</p> <p>Bete beharreko premiak espedientean justifikatzea.</p>	<p><b>2</b></p>  <p>Sortetan zatitzea.</p> <p>FINANTZA-PRODUKTU ARDURATSUEN SORTA BAT FINKATZEA</p>	<p><b>3</b></p>  <p>IZAERA ETIKOKOA, SOZIALA ETA INGURUMENEKOA DUTEN ESLEIPEN IRIZPIDEAK</p>	<p><b>4</b></p>  <p>IZAERA ETIKOKA, SOZIALA ETA INGURUMENEKOA DUTEN EGIKARITZE-BALDINTZA BEREZIAK</p>	<p><b>5</b></p>  <p>KONTROLATZEKO ETA EGIAZTATZEKO SISTEMA</p>
--	--	---	--	---

# 1. Finantza-zerbitzuen kontratuen kategorizazioa

## Banku- edo finantza-produktu eta -zerbitzuen kategorizazio juridikoa

Oro har eta lagunartean, Administrazio publikoek banku eta finantza-entitateekin kontratatzen dutela diogu. Hala ere, kontratazio publikoari ekitean zorrozki errespetatu behar ditugu estatuko araudia eta Europako zuzentarauak, bai eta berariazko prozedurak eta betebeharrak ere. Ondorioz, eta lehendabizi, ikuspegi juridiko batek aztertuko eta kontzeptualizatuko ditugu finantza-zerbitzu eta -produktu desberdinak.

Bereizketa hau garrantzitsua da; izan ere, kontratazio publikoaren araudiak bi tipologia bereizten ditu finantza-produktu eta -zerbitzuei dagokienez, eta bakoitzari erregulazio desberdina ezartzen zaio. Hortik espezifikotasunak eratortzen dira prestakuntzari, prozedurari, esleipenari, ondorioei eta azkentzeari dagokienez. Horretarako, lehenbiziko, laburpen bat aurkezten dugu:

	Maileguak. Diruzaintzako eragiketak. Baloreen edo finantza-tres- nen salerosketa zerbitzuak.	Gordailuak. Banku- eta inbertsio-zerbitzuak. Kredituak eta mikrokredituak ematea. Finantza errentamenduak ( <i>leasing</i> ).
<b>ERREGULAZIOA</b>	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena - 10. artikulua	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena - 25.1.a).1.a artikulua
<b>KATEGORIA JURIDIKOA</b>	SPKLtik kanpo dauden kontra- tuak	SPKLren menpeko kontratuak baina izaera pribatukoak
<b>DESKRIBAPENA</b>	SPKLren eremutik kanpo daude baloreen edo beste finantza-tres- na batzuen jaulkipen, erosketa, salmenta edo transferentziare- kin zerikusia duten finantza-zer- bitzuei buruzko kontratuak, 2004/39/EE Zuzentarauaren ara- bera, Europar Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko api- rilaren 21ekoa, finantza-tresnen markatuei buruzkoa.  Halaber, mailegu kontratuak eta diruzaintzako eragiketak kanpoan geratzen dira.	Administrazio kontratuak dira baina zuzenbide pribatuak arautzen ditu CPV erreferentzia duten finantza-zerbitzuen kontratuak, 66100000-1 eta 66720000-3 artekoak. Zehazki: 66100000-1. Banku- eta inbertsio-zerbitzuak. 66110000-4. Banku-zerbitzuak. 66111000-1. Banku zentralak emandako zerbitzuak. 66112000-8. Funtsak gordailutzeko zerbitzuak. 66113000-5. Kredituak emateko zerbitzuak. 66113100-6. Mikrokredituak emateko zerbitzuak. 66114000-2. Finantza errentamenduko zerbitzuak. 66115000-9. Nazioarteko transferentzien zerbitzuak. 66120000-7. Inbertsioen banku-zerbitzuak eta horiekin lotutako zerbitzuak.
<b>LEGEAREN APLIKAZIOA</b>	Kanpoan geratzen diren kontra- tuak direnez, kontratua presta- tzeko eta esleitzeko prozeduran ez du SPKLk agintzen, baizik eta bere oinarritzko printzipioak soilik aplikatu behar direla: kaudimena, publizitatea, lehia eta gardenta- suna. Hala ere, SPKL kanpoan utzi arren, izaera subsidiarioa eta in- terpretaziozkoa du.	SPKLk 26.2 artikuluan ezartzen du izaera pri- batuko administrazio kontratuak direnez, ber- ren prestaketa lege horren lehenengo liburu- aren eta bigarren liburuaren arabera arautuko dela, baina bere ondorioei eta azkentzeari dagokionez, zuzenbide pribatuko arauak apli- katu beharko dira (erregulazio harmonizatuko kontratuen kasuan izan ezik).

Arlo juridikoan, gainera, gogorarazi behar dugu finantza-zuhurtasuneko printzipioa betetzeak ez duela inolako eraginik eta ez duela eragozten irizpide sozialak, inguru-  
menekoak edo erantzukizun sozial eta fiskalekoak sartzea. Printzipio hau 2017ko uz-  
tailaren 4ko Ebazpenak, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiare-  
nak, Autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen zorpetze-eragiketeki eta eratorritakoei  
aplikatzekoa den finantza-zuhurtasunaren printzipioa definitzen duenak, xedatzen  
du.



## Gidaren ikuspegia

Bi tipologiak, bakoitzaren araubide juridikoa eta arau-kategorizazioa ezarri ondoren, funtsezko kontzeptuak modu praktikoan laburtuko ditugu eta gure aplikazio metodologia zein izango den azalduko dugu:

1. Alde batetik, mailegu kontratuak, diruzaintzako eragiketak eta baloreen salerosketa ditugu. SPKLtik kanpo dauden zerbitzuak dira, hau da, haien kontratazioa malguagoa da eta ez dago kontratu publikoen araudiaren prozeduren eta baldintzen menpe, baina bai bere printzipioen menpe; beraz, gardentasuna, lehia eta publizitatea egon behar dira kontratazioan, besterik ez.
2. Bestalde, banku-gordailuen eta kontu korronteen kontratuak ditugu, lotuta dituzten eragiketekin (transferentziak, ordainagiriak, etab.), kreditu eta mikroreditu eragiketekin eta finantza errentamenduekin (*leasing*).

Zerbitzu mota horiek SPKLn berariaz jasotako kontratu publikoak dira eta, haien ondorioak eta azkentzea zuzenbide pribatuaren arabera arautzen badira ere, kontratazio prozeduraren funtsezko zatia SPKLren arabera egin behar da, hau da, baldintza-agirien idazketa osoa, kaudimen- eta gaitasun-betekizunen, bermeen, publizitatearen, esleipen irizpideen edo betetzeko balditzen idazketa, bai eta bere aldaketa, SPKLren arabera arautu behar da.

3. Beraz, eta ikuspegi legal zorrotzaren arabera, hainbat irizpide sozial, etiko eta ingurumeneko proposatu daitezke, kontratua lehenengo motakoa den edo bigarrenakoa den kontuan hartuta.
4. Dena den, gida honetan bi tipologiak bilduko ditugu arrazoi hauengatik:
  - Praktikan alde gutxi dago eta nahiago dugu ikuspegi argia eta irisgarria erabiltzea, finantza-zerbitzuen kontratu bakoitzaren espezifikotasunak ulertzea beharrezkoa ez izateko moduan. Honela, irizpide etikoak, sozialak eta ingurumenekoak nola txertatu aztertu eta azalduko dugu, kontratatu beharreko zerbitzua bata ala bestea izan.
  - Maileguen kontratazioak eta diruzaintzako eragiketek malgutasun handiagoa eta prozedurei eta betekizunei gutxiago lotzea onartzen badute ere, egia esan ez dugu zertan SPKLri hertsiki lotuta egotetik urrundu behar; izan ere, horren arabera, legez sar ditzakegu bi kontratu blokeetan egindako proposamen eta klausula guztiak. Egiazki, egungo SPKLk kontratazio publikoan irizpide sozial eta ingurumenekoak txertatzea sustatzen du eta horretara behartu ere eta, ondorioz, kortse estuenarekin ere tarte handia daukagu.

- Bi kontratu motak aldi berean aztertzea saihestuko dugun arren, momenturen batean azalpen-ohar bat gehituko dugu adierazteko zer gehiago eska daitekeen edo zer gehiago gehi daitekeen legez SPKLren zorroztasunari gutxiago lotuta dagoen eta malguena den tipologiarako.

## Kontratazio Publiko Arduratsua: legezko betebeharra

Prozedurazko aukera praktikoetan eta aplikazio proposamen zehatzetan sartu aurretik, ezinbestekoa da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 1.3 artikulua aipatzea. Artikulu honek, xedapen efektu ez deklarativo batekin, argi eta garbi adierazten du kontratu publiko guztiek erantzukizun sozialeko eta ingurumen-erantzukizuneko irizpideak izan behar dituztela.

### 1. artikulua. Xedea eta zertarakoa.

3. Kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira, kontratuaren objektuarekin zerikusia duten bitartean, sinetsita haiek sartzeak kalitatea-prezioa erlazio hobea emango duela kontratu-prestazioan, bai eta efizientzia handiagoa eta hobea ere funts publikoen erabileran. Halaber, enpresa txiki eta ertainen eta ekonomia sozialeko enpresen kontratazio publikorako sarbidea erraztuko da.

Kontratuen lege berriarekin paradigma aldaketa nabarmena da, klausula sozial eta ingurumenekoak legezkoak diren ala ez erabakitzeke edozein eztabaida juridiko edo doktrinal zentzugabekoa baita aurrerantzean. Izan ere, indarrean sartu zenetik, SPKLren 1.3 artikulua urratzeagatik legez kanpokoa dena zera da: irizpide sozialak eta ingurumenekoak txertatu gabe kontratatzea.

Beraz, jarraian garatuko ditugun proposamenek banku- edo finantza-zerbitzu eta -produktuei buruzko kontratu publikoak lizitatzeko eta esleitzeko borondatea eta betebeharra islatuko dituzte, kontratu publikoen araudiko aginduen arabera. Xedapen hau, gainera, SPKLren 28.2 artikuluekin indartuta geratzen da:

### 28. artikulua. Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan.

2. Sektore publikoko erakundeek efizientzia eta erabakitako baldintzak betetzen direla begiratu dute kontratazio publikoko prozesuak gauzatzeko orduan, izapideak ahalik eta lasterren egiten lagunduko dute, kontratazio publikoaren prozeduretan alderdi positibo gisa hartuko dituzte kontsiderazio sozialak, ingurumenekoak eta berrikuntzakoak, eta enpresa txiki eta ertainek parte hartzea eta informazioa kosturik gabe eskuratzea sustatuko dute, lege honetan aurreikusitako eran.

# 2. Kontratuaren objektua eta kontratazio espedientea

## Kontratuaren objektua

Lehenengo auzia eta proposamena kontratuaren objektuan bertan irizpide etikoak, sozialak eta ingurumenekoak espresuki aipatzea da. Honela, hezurmamitu eta age-rian jartzen da kontratazio-organoaren eta Administrazio publiko kontratugileren borondatea ez dela mailegu hutsa lizitatu eta kontratatu nahi izatea, baizik eta erantzukizun sozialeko, fiskaleko eta ingurumeneko irizpideak dituen mailegu bat.

Aukera hau guztiz bermatzen du 99.1 artikuluan 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak:

### 99. artikulua. Kontratuaren objektua.

1. Sektore publikoko kontratuen objektuak zehatza izan behar du. Objektu hori bete nahi diren beharizan edo funtzionaltasun zehatzei erreparatuta definitu ahalko da, kontratuaren objektua konponbide bakar batera mugatu gabe. Berreziki, kontratatzen diren ondasun, obra edo zerbitzuen efizientzia eta jasangarritasuna hobetzen duten berrikuntza teknologiko, sozial edo ingurumenekoak sar daitezkeela uste den kontratuetan definituko da modu horretan.

Araudiak kontratuaren objektua erreferentzia sozial eta ingurumenekoekin definitzeko aukera zehazten du, eta agintea ere ezartzen du (“definituko da”) kasu batzuetan (“sar daitezkeela uste den”). Gainera, kontratuaren objektuarekiko lotura behin eta berri-errepikatzen da SPKL17n, eta horregatik da garrantzitsua.

Ohartarazi behar da indargabetutako 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren betekizunak ez duela agintzen dagoeneko. Dekretu honek, 150.1 artikuluan honakoa exijitzen zuen: “esleitzeko irizpideak kontratuaren objektuari zuzenean loturik egon behar dute”. Interpretazio murriztaile hau kontratazio publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentarauan, 2014ko otsailaren 26koa, jorratu eta ebatzi zen. Testu hau hitzez hitz txertatu da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 145.6 artikuluan, eta auzi hau behin betiko konpondu da.

**145. artikulua. Kontratua adjudikatzeko baldintzak eta irizpide motak.**

**6.** Honako kasu honetan egongo da loturik adjudikazio-irizpide bat kontratuaren objektuarekin: adjudikazio-irizpidea kontratu horren indarrez eman behar diren prestazioei dagokienean edo haiek integratzen dituenean, edozein alderditan eta bizi-zikloko edozein etapatan, horren barnean direla honako prozesu hauetan esku hartzen duten faktoreak:

- a)** obren, horniduren edo zerbitzuen produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, erreferentzia berezia eginez ingurumenaren eta gizartearen ikuspuntutik jasangarriak eta zuzenak diren produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-moduei;
- b)** edo bizi-zikloaren beste etapa bateko prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, baita faktore horiek substantzia materialaren zati bat ez direnean ere.

Ondorio juridikoa argia da: lotura kontratuaren prestazio osoarekiko ezarri behar da modu zabalean. Horrela, produktu edo zerbitzu baten garapenaren edozein alderdi, dela diseinua edo ekoizpena, edo merkaturatzea eta eskueran jartzea, kontratuaren objektuarekin lotuta dagoela ulertu behar da, prestazioaren substantzia materialaren parte den ala ez alde batera utzita.

Beraz, eta behin eta berriro errepikatuz ez dela beharrezkoa ez nahitaezkoa kontratuaren objektua legalki definitzea alderdi sozial eta ingurumenekoen arabera, kasu zehatz honetan gomendatu egiten dugu balio erantsi nabaria gehitzen duelako:

- 1.** Gardentasuna ematen die prozedurari eta lizitatzaleei, prestazioaren edukiaren edo betebehar sozial, etiko, ingurumeneko edo fiskalen berri izan dezaten.
- 2.** Indar eta balio handiagoa ematen die txertatuko ditugun klausula sozial eta ingurumenekoei, kontratuaren objektutik bertatik adierazten baita bere garrantzia, eta jakinarazten du nolabait klausulak ez direla erretorikoak eta betetzen diren egiaztatuko dela.
- 3.** Administrazio publiko kontratugileak enpresa-sarearekiko eta herritarrekiko duen mezu argia islatzen du, erantzukizun sozialarekiko, saiheste- eta ihes-fiskalaren aurkako borrokarekiko, berdintasunarekiko, ingurunearen jasangarritasunarekiko eta kohesio sozialarekiko konpromisoa adieraziz.
- 4.** Ondorioz, kontratuaren objektuan erantzukizun soziala eta ingurumenekoa bera-riaz eta labor aipatzea gomendatzen da, honako termino hauetan edo antzekoetan:

### APLIKATZEKO PROPOSAMENA: KONTRATUAREN OBJEKTUA

(Banku-zerbitzua, kreditua, finantza-mailegua, banku-gordailua, diruzaintzako soberakinak jartzea, kontu korrontea, inbertsio-funtsak, etab.) kontratatzea irizpide etikoekin eta erantzukizun sozialeko, fiskaleko eta ingurumeneko irizpideekin.

## Bete beharreko premiak eta espedientea justifikatzea

Kontratuaren objektua koherentziaz eta bere eduki arduratsua aipatuz definitzeko interesari eutsiz, gomendagarria da, halaber, kontratazio espedientearen justifikazio memorian, edo bete beharreko premiak zehaztean, labur azaltzea balio erantsia eta finantza- edo banku-zerbitzuak eta produktuak irizpide etiko, sozial, fiskal eta ingurumenekoekin kontratatzeko borondatea.

Zentzu honetan Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28.1 eta 1.1 artikuluetako erreferentziak aipatu behar dira:

### **28. artikulua. Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan.**

1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.

### **1. artikulua. Xedea eta zertarakoa.**

1. Lege honen xedea sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea da, eta horren bidez bermatu nahi da, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatzeko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioa eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari eta osotasunaren printzipioari lotuta, ziurtatu nahi da obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko diru-funtsak efizientziaz erabiliko direla, dauden premiak aldeztu aurretik definituz, lehia askea babestuz eta ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza hautatuz.

## APLIKATZEKO PROPOSAMENA: ESPEDIENTEAREN JUSTIFIKAZIOA ETA BETE BEHARREKO PREMIAK

Finantza maileguaren (edo banku-zerbitzua edo kreditua edo banku-gordailua edo diruzaintzako soberakinak jartzea edo kontu korrontea edo inbertsio funtsa, etab.) kontratu hau lizitatzeak, esleitzeak eta gero betetzeak barne hartzen ditu berez irizpide etikoak eta erantzukizun sozialeko, fiskaleko eta ingurumeneko irizpideak.

Hala, espedientean berariaz azaltzen da kontratuaren objektua bere prestazioak osatzen dituzten edo haiei erreferentzia egiten dieten alderdi guztiek osatzen dutela ulertu behar dela, edozein alderditan eta bere bizitzaren zikloaren edozein etapatan, barne hartuta ekoizpen-, prestazio- edo merkaturatze-prozesuetan parte hartzen duten faktoreak, bereziki ingurumen eta gizarte aldetik jasangarriak eta bidezkoak diren ekoizpen-, prestazio- edo merkaturatze-moduei dagokienez, baita faktore horiek bere substantzia materialaren parte ez direnean ere.

Alde horretatik, ezin da alde batera utzi finantza sektorearen erantzukizun sozialak eta ingurumenekoak bere ekoizpen-, prestazio- eta merkaturatze-prozesua osatzen dutela; beraz, bai pasiboak erakartzea, bai pasiboak jartzea, zerga-betebeharrak betetzea, edo saiheste- eta ihes-fiskala, espekulazio-inbertsioak edo lan-politikak prestazioaren parte dira, eta bertan irizpide etikoak eta erantzukizun sozialekoak, fiskalekoak eta ingurumenekoak jasotzen dira.

Honela, Administrazio publiko kontratugileak bere finantza-premiak asetzeaz gain, irizpide horiek enpresa esleipenduna hautatzeko eta ondoren kontratua egikaritzeko txertatu nahi ditu.

# 3. Finantza-zerbitzu edo produktu arduratsuen sorta bat edo batzuk ezartzea

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak berariaz aipatzen du 99. artikuluan sortak ezartzeko aukera (ia derrigortasuna esan genezake):

## 99. artikulua. Kontratuaren objektua.

3. Kontratuaren izaerak edo objektuak horretarako bidea ematen duten guztietan, atal guztiak modu independentean gauza daitezela aurreikusi beharko da, sortaka zatituta. Sortak erreserbatu ahalko dira, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, kontratazio-organoak aukera izango du kontratuaren objektua sortaka ez zatitzeko horretarako arrazoi egokiak daudenean –espedientean behar bezala zehaztu beharko dira horiek–, salbu eta obra-emakidako kontratuetan.

[...]

4. Kontratazio-organoak, kontratuaren objektua sortaka zatitzen duenean, honako muga hauek ezarri ahalko ditu, betiere espedientean egoki justifikatuta:

a) Hautagai edo lizitatzaille berak eskaintza aurkeztu ahal duen sorta kopurua mugatu ahalko du.

b) Halaber, lizitatzaille bakoitzari adjudikatu ahal zaion sorta kopurua mugatu ahalko du.

[...]

Sortetako bat edo batzuk erreserbatu ahalko dira enplegu-zentro berezietarako edo laneratze-enpresetarako, edo, bestela, kontratu horiek egikaritzeko erreserbako gutxieneko ehuneko bat ezarri ahalko da enplegu babestuko programe-tarako, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz. Halaber, sortak erreserbatu ahalko dira berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren erakundeentzat, aipatutako xedapenean ezarritako baldintzetan.

Sortak ezartzearen helburua zera da: enpresa gehiago kontratazio publikoan sartzea ahalbidetzea. Kontua da lehia irekitzea eta saihestea lizitazio publikoek enpresa gutxi batzuen eskuetan dagoen oligopolio bat osatzea. Hala, sortak ezartzean, enpresa txiki eta ertainei, tokiko enpresei, Enplegu Zentro Bereziei eta Laneratze Enpresei, eta ekonomia sozialeko enpresei kontratu publikoen esleipenean sartzea errazten zaie.

Kontzeptua erraza da: finantza-zerbitzu edo -produktuen kontratu bakarra lizitatu eta esleitzen bada, banku etikoko entitateek aukera gutxi dute esleipendun izateko. Aldiz, kontratu hori zatitzen bada eta enpresa bakoitzak sorta batean soilik parte hartu edo esleipendun izan ahal izatea mugatzen bada, aukera gehiago izango ditu.

Arau aldaketa oso esanguratsua da; izan ere, kontratuen aurreko legediarekin ezin zen kontratu publiko bat zatitu, baina 9/2017 Legea indarrean sartu zenetik, posible izateaz gain, ahal den kontratu guztietan sortak egitea izan behar da araua.

Sortak zehazteak dakarren berritasuna eta interesa direla eta, beren alderdi garrantzitsuenak laburbiltzen ditugu:

1. Sortak zehaztea arau orokorra da eta ez salbuespena. Izan ere, obra publikoaren emakida kontratuan salbu, kontratua sortatan zatitzen ez bada, kontratazio-organok behar bezala justifikatu behar du espedientearen zergatik ez duen zatitzen edo sortak egiten.
2. Legezkoa da sorten tamaina eta kopurua erabakitzea.
3. Legezkoa da enpresa bera aurkeztu daitekeen edo parte hartu dezakeen sorta kopurua mugatzea.
4. Legezkoa da enpresa bera esleipendun izan daitekeen sorta kopurua mugatzea.

### ERRESERBATUTAKO SORTAK EDO KONTRATUAK BANKU- EDO FINANTZA-SEKTOREAN?

SPKLk espresuki arautzen du (99. artikulua, 4. XG eta 48. XG) kontratuak eta kontratu sortak Enplegu Zentro Bereziak eta Laneratze Enpresentzat edo ekonomia sozialeko enpresa eta erakundeentzat erreserbatzeko aukera.

Kontratu bat edo kontratu baten sorta erreserbatutzat jotzen denean, SPKLn aipatutako erakundeek soilik parte hartu ahalko dute lizitazio horretan eta bertan onartuak izan: bai Enplegu Zentro Bereziak eta Laneratze Enpresak, bai ekonomia sozialeko erakundeak.





Dena den, finantza-zerbitzu edo -produktuen kontratu bat edo kontratu baten sorta ekonomia sozialeko enpresa edo erakundeentzat edo Enplegu Zentro Berezi eta Laneratze Enpresentzat erreserbatzeko aukera ez da interesgarria gure helbururako.

- Laneratze Enpresa eta Enplegu Zentro Bereziarentzat erreserbatutako sorten edo kontratuen kasuan (SPKL, 4. XG), arrazoia praktikoa da; izan ere, ez dago finantza- edo banku-sektorean aritzen den erakunderik. Noski, etorkizunean sektore honetan Laneratze Enpresa edo Enplegu Zentro Berezi bat sortuko balitz, kontratu edo sorta hori erreserbatzea guztiz egokia izango litzateke.
- Hala ere, ekonomia sozialeko enpresa eta erakundeentzat sorta edo kontratu bat erreserbatzeko aukera baztertzeko arrazoia (SPKL, 48. XG) legezko eragozpen hutsa da; izan ere, xedapen gehigarri horrek zehatz-mehatz ezartzen du kontratuaren zein xede eta CPV espezifiko erreserbatu behar diren erakunde hauentzat eta kontua da finantza- eta banku-arloko zerbitzu eta produktuak kontratatzea baztertua dagoela. Beraz, ez da legezkoa ekonomia sozialeko erakunde eta enpresentzat sektore honetako kontratu bat erreserbatzea.

Sortak ikuspegi juridiko eta kontzeptual batetik deskribatzeko, esan beharra dago SPKLk ulertzen duela kontratu bat sortetan zatitu behar dela, baldin eta prestazioa hainbat unitate funtzioaletan, kuantitatiboetan edo geografikoetan zatitu badaiteke, edo bereizita erabili, eman edo betearaz daitezkeen zatietan zatitu badaiteke.

Hau da, sortak ezar daitezkeela zatitu daitezkeen kontratu-prestazioaren edozein alderdiri dagokionez. Eta adibide gisa, hainbat kasuistika planteatuko ditugu banku- edo finantza-produktu eta zerbitzuen sektorean:

- Mailegu kontratu bat **sorta kuantitatiboetan** banatu daiteke, halako moldez non milioi bat euro mailegatzeko kontratua berrehun mila euroko bost sortetan zatitzen den.
- Banku-kontuaren eta lotuta dituen zerbitzuen kontratua **sorta funtzioaletan** banatu daiteke, halako moldez non sorta bat kultura arlorako egiten den, beste sorta bat ogasun arlorako, beste bat hirigintza arlorako, kirolak, eta abar.
- Kasu batzuetan, kontratua **sorta geografikoetan** zatitzea posible litzateke; horrela, Administrazio publiko batek bere kudeaketa probintzien, auzoen, eskualdeen edo barrutien arabera deszentralizatuta izango luke, eta mugapen geografiko jakin bakoitzeko banku-zerbitzuen kudeaketa sortetan banatu ahalko luke.

- Halaber, banku-zerbitzuen kontratu bat **prestazioen arabera zatitu daitekeen sortetan** banatu daiteke. Adibidez: sorta bat diruzaintzako soberakinak jartzeko, sorta bat kutxako maileguetarako, sorta bat zergen ordainagiriak kudeatzeko, sorta bat epe laburreko kredituetarako, eta abar.

Esparru orokorra ezarri ondoren, eta aipatutako aukeretako batzuk aplikatzeari kalterik egin gabe, **proposamen operatiboena eta gure helburura egokitzen dena proposatuko dugu: sortetako bat edo batzuk banku-zerbitzu edo -produktu arduratsu gisa kalifikatzea**. Horrela bermatu egingo da erakunde arduratsu egiaztatu bat izango dela esleipendun. Eta horretarako, lehendabizi banku-produktu edo -zerbitzu arduratsuen sorta bat ezarriko dugu eta ondoren kaudimen tekniko soziala exijituko dugu, SPKL17ren 90.3 artikulua xedatzen duenaren arabera:

#### **90. artikulua. Kaudimen tekniko edota profesionala zerbitzu-kontratuetan.**

**3.** Arlo sozialean, hurbiltasun-zerbitzuak emateko arloan edo antzeko beste batzuetan gaitasun berariazkoak eduki behar badira kontratuaren objektua betetzeko, arlo horietan esperientzia zehatza, ezagutzak eta bitartekoak edukitzea eskatuko da kaudimen tekniko edo profesionaleko baldintza gisa, eta hori artikulua honen 1. apartatuan ezarritako bitartekoekin egiaztatu beharko da.

#### **APLIKATZEKO PROPOSAMENA: BANKU-PRODUKTU EDO -ZERBITZU ARDURATSUEN SORTA**

2. sorta. Finantza-mailegua (banku-zerbitzua, kreditua, banku-gordailua, diruzaintzako soberakinak jartzea, kontu korrontea, inbertsio-funtsak, etab.) irizpide etikoen eta erantzukizun sozialeko, fiskaleko eta ingurumeneko irizpideekin.

Kaudimen teknikoa. 2. sortaren ezaugarri bereziak kontuan izanik, enpresa lehiakideek beren prestazioak betetzeko kaudimen tekniko eta profesional egoia dutela bermatzeko premia ezartzen da, erantzukizun sozialeko, fiskaleko, etikoko eta ingurumeneko irizpideen arabera.

Horretarako, Europako Banku Etikoen eta Alternatiboen Federazioan (FEBEA - Fédération Européenne des Banques Ethiques et Alternatives) edo Banku Baliadun baterako Aliantza Globalean (GABV - Global Alliance for Banking on Values), edo banku etikoen edo banku arduratsuen beste federazio edo elkarre baliokide batean parte hartzen dutela frogatu beharko dute eta ziurtapena erantsi, edo bestela, zuzenbidean onartutako beste edozein frogabideren bidez frogatu beharko dute elkarre horietako edo beste edozein elkarre baliokidetako kide izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela.

# 4. Esleipen irizpideak

Esleipen irizpideak baldintza-agirietan idaztea eta jasotzea funtsezko unea da kontratu publikoen lizitazioan. Izan ere, enpresa lizitatzailleek proposamenak aurkeztu eta kontratazio-organoak irizpide horiek ebaluatu ostean, enpresa esleipenduna zein den erabakiko da eta, ondorioz, zein izango den kontratista eta zein izango den kontratuaren prestazioa bete beharko duena.

SPKLk dio esleipen irizpideek kalitate-prezio onenari erantzun behar diotela, eta “alderdi sozial eta ingurumenekoak izan ahalko dituztela kontratuaren objektuarekin zerikusia duten bitartean”. Beraz, irizpide etikoak, sozialak eta ingurumenekoak txertatzeak legezko berme osoa du eta SPKL17ren 145. artikuluan berariaz aurreikusten da:

## 145. artikulua. Kontratua adjudikatzeko baldintzak eta irizpide motak.

1. Kontratua adjudikatzeko, adjudikazio-irizpide ugari erabiliko dira, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.

Espedientean alde zuzenetik justifikatuta, kostu-eraginkortasun erlazio onenari erantzuten dion planteamendu batean oinarritutako irizpideen arabera adjudikatu ahalko dira kontratuak, prezioan edo kostuan oinarrituta; esate baterako, 148. artikulua araberako bizi-zikloaren kostuaren kalkulua erabiliz.

2. Kalitate-prezio erlazio onena irizpide ekonomiko eta kualitatiboaren arabera ebaluatuko da.

Kalitate-prezio erlazio onena ebaluatzeko kontratazio-organoak ezartzen dituen irizpide kualitatiboek ingurumen-alderdiak edo alderdi sozialak jaso ahalko dituzte, kontratuaren objektuari lotutakoak, artikulua honen 6. apartatuan ezarritako moduan; honako hauek izan ahalko dira, besteak beste:

1.<sup>a</sup> Kalitatea –balio teknikoa barne–, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, irisgarritasuna, diseinu unibertsala edo erabiltzaile guztientzako diseinua, ezaugarri sozialak, ingurumen arlokoak edo berritzaileak, eta merkaturatzea eta haren baldintzak;

Ingurumen-baldintzak, besteak beste, honako hauei buruzkoak izan ahalko dira: berotegi-efektuko gasen jaulkipena gutxitzea, aurrezpen eta efizientzia



energetikoko neurriak erabiltzea eta kontratua egikaritzean iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea, eta kontratua egikaritzeak uki ditzakeen baliabide naturalei eustea edo haiek hobetzea.

Kontratuaren ezaugarri sozialak, besteak beste, honako xede hauei buruzkoak izango dira: desgaitasuna duten pertsonen, beharrea dauden pertsonen edo talde ahuletako kideen gizarteratzea sustatzea kontratua egikaritzeko aukeratutako pertsonen artean, eta, oro har, desgaitasuna duten pertsonen edo gizarte-bazterketaren egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea; enplegu-zentro bereziekin eta laneratze-enpresekin azpikontratatzea; kontratua egikaritzean aplikatzen diren genero-berdintasuneko planak eta, oro har, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna; emakumeen kontratazioa sustatzea; lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea; lan- eta soldata-baldintzak hobetzea; enpleguaren egonkortasuna; kontratua egikaritzeko pertsona kopuru handiena kontratatzea; prestakuntza eta osasunaren eta laneko segurtasunaren babesa; irizpide etikoak eta erantzukizun sozialekoak aplikatzea kontratuaren prestazioan; edo kontratua egikaritzen den bitartean merkataritza ekitati-boan oinarritutako produktuen hornidurari edo erabilerari buruzko irizpideak erabiltzea.

145. artikulua, azterketa juridiko sakona egin behar izan gabe, esleipenerako irizpide sozialen legezotasun osoa zehazten du, eta aurreko arau esparruarekin dagoen edozein eragozpen argitzen du:

- Esleipen irizpideen artean sar daitezkeen gai sozialen zerrenda zabal eta irekia ezartzen da. Eta bereziki, azpimarratu behar da espresuki aipatzen duela esleipenerako irizpide baliadun gisa **irizpide etikoak eta erantzukizun sozialekoak aplikatzea kontratuaren prestazioan**.
- “Kontratuaren objektuarekiko lotura zuzena” kontzeptua gainditu da, **lotura kontratuaren prestazioarekin berarekin ezarri behar delako**. Hala, arauak kontuan hartzen du eta azaltzen du lotura duela (eta baliozkoa dela) kontratu-prestazioan txertatuta dagoen edozein gai, edozein alderditan, bere bizitza-zikloaren edozein etapatan, baita bere substantzia materialaren parte ez direnean ere, ekoizpen prozesu espezifikoan, edo **ingurumen eta gizarte aldetik jasangarriak eta bidezkoak diren ekoizpen-, edo merkaturatze-moduei dagokienez**.

- › “Ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza” kontzeptua gainditu da eta “kalitate-prezio erlazio onena” kontzeptuak ordezkatu du. Horrela, aurreko arau-esparruarekin oraindik ere gertatzen ziren interpretazio murriztaileak saihesten dira; izan ere, interpretazio horien arabera, irizpide sozialek traslazio ekonomikoa izan behar zuten eta, diruari dagokionez, eskaintza neurgarri hobea ekarri. Argudiaketa hau atzean utzi da.

Alor praktikoan, arren iradokitzen dugu klausula orokorrak, zehaztugabeak, subjektiboak eta egiaztatzeko zailak edo ezinezkoak ez idaztea. Aldiz, klausulak objektiboak eta izaera objektibokoak izatea proposatzen dugu.

Era berean, legezkoak ez diren klausula jakin batzuei buruz ohartarazi behar dugu, ez daudelako kontratuaren prestazioarekin lotuta eta, hortaz, diskriminatzaileak izango lirateke. Esaterako:

- › Ezin dira puntuak eman irabazi asmorik gabeko erakundea izateagatik, ezta tipologia juridiko bat edo beste izateagatik ere (fundazioa, elkartea edo kooperatiba).
- › Ezin da baloratu estatutuetan edo sortze-eskrituran xede bezala agertzea finantza arduratsuen edo banku etikoaren gaineko sustapena eta sentsibilizazioa, edo beste alderdi sozial bat. Sortze- edo estatutu-helburu edo -xede bat ez da kontsideratzen kontratuaren prestazioarekin lotuta dagoela.
- › Ezin da baloratu erakunde edo enpresa lizitatzailerak banku etikoaren arloan duen esperientzia eta ibilbidea, baina ebaluatu liteke kontratua egikaritutako duten langileek kontratuaren prestazioarekin lotura duten gai zehatzetan duten esperientzia eta prestakuntza espezifikoa, hala nola finantza etikoan edo banku arduratsuen gaian.

## APLIKATZEKO PROPOSAMENA: ESLEIPEN IRIZPIDEAK

### A. Banku etikoko elkarte bateko kide izatea

10 puntu emango zaizkie bere proposamen teknikoan Europako Banku Etikoen eta Alternatiboen Federazioko (FEBEA) edo Banku Baliiodun baterako Aliantza Globaleko (GABV), edo banku etikoen edo banku arduratsuen beste federazio edo elkarte baliokide bateko kide direla frogatzen duten enpresei, edo bestela, zuzenbidean onartutako beste edozein frogabideren bidez elkarte horietako edo beste edozein elkarte baliokidetako kide izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela frogatzen dutenei.



### B. Erantzukizun sozialaren ziurtapena

10 puntu emango zaizkie bere proposamen teknikoan Enpresen Erantzukizun Sozialaren gaian ziurtapen bat dutela eta kontratua egikaritzeko eskura jartzen dutela adierazten duten enpresei. Honako hauek izango dira ziurtapen baliodunak ondorio horietarako: ICEA, SGE 21, SA 8000, DS 49001, TCO edo balioki-deak. Era berean, enpresak ziurtapen horiek lortzeko baldintza guztiak betetzen dituela frogatu ahalko da edozein frogabide erabilita edo kanpoko auditoriaren bidez.

### C. Erantzukizun sozialeko politikak

Gehenez 10 puntu emango zaizkie proposamen teknikoan bere kudeaketan eta antolamenduan enpresaren erantzukizun sozialeko politikak aplikatzeko konpromisoa hartzen duten enpresei. Horretarako, x puntu emango dira ondorengo azpi-irizpide bakoitzeko (hautatu behar da):

1. Kontratua egikaritzen duten langile guztiei aplikatu beharreko sektoreko hitzarmena zorrotz betetzea: puntu 1.
2. Kontratua egikaritzeko lan merkatuan beharrean dauden pertsonak kontratatzea, bereziki desgaitasuna duten pertsonak, gizarte-bazterketaren egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonak eta genero-indarkeria jasaten duten emakumeak: puntu 1.
3. Enplegu Zentro Bereziak edota Gizarteratze eta Laneratze Enpresak azpikontratatzea: puntu 1.
4. Kontratua egikarituko duen lantaldean kontratu mugagabea duten langileen ehunekoa gutxienez % 80 izateko konpromisoa: puntu 1.
5. Kontratua egikarituko duten langileetatik emakumeak gutxienez % 50 izateko konpromisoa: puntu 1.
6. Kontratua egikarituko duen lantaldean Berdintasun Plana ezartzea: puntu 1.
7. Kontratua egikaritzen den bitartean gizartea informatzeko edo sensibilizatzeko ekintzak egiteko konpromisoa, finantza etikoei edo finantza-produktuen alderdi etiko eta arduratsuei dagokienez: puntu 1.
8. Kontratua egikaritzeari atxikiko zaizkion langileek finantza etiko eta arduratsuetan gutxienez x orduko prestakuntza dutela dioen egiaztagiria: puntu 1.

**APLIKATZEKO PROPOSAMENA: GEHITUTAKO ESLEIPEN IRIZPIDEA  
MAILEGUAK, DIRUZAINZAKO ERAGIKETAK ETA BALOREEN EDO FINANTZA-  
TRESNEN SALEROSKETA ZERBITZUAK KONTRATATZEKO**

**Etxegabetzeen aurkako klausula**

10 puntu emango zaizkie kontratua egikaritu bitartean eta erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, fede oneko zordunen kasuan lehen etxebizitzaren hipoteka betearazteak baztertzeko konpromisoa hartzen duten enpresei, edo ezinezkoa bada, gutxienez bost urterako bizitegi-alternatiba prezio eskuragarrian ziurtatzen dutenei.



.....

Cogorarazi nahi dugu gida honen lehenengo atalean finantza-produktu eta -zerbitzu desberdinen kategorizazio juridikoa egin dugula. Horien ondorioz eta SPKLren 10. artikulua arabera, kontratu publikoen arauditik kanpo daude maileguen, diruzaintzako eragiketen eta baloreen salerosketa zerbitzuen kontratazioa. Horregatik, zerbitzu hauen kontratazioan etxegabetzeen aurkako klausula bat txertatzea zuzenbidearekin bat dator, baina, aitzitik, zalantzarik ez duen irizpidea da gordailuak, banku- eta inbertsio-zerbitzuak, kredituak eta mikroredituak ematea eta finantza-errentamenduak kontratatzeak. Argudiaketa juridikoa da zerbitzu eta produktu hauetan SPKL aplikatu behar dela nahitaez prestaketa eta esleipenean eta, ondorioz, klausula zalantzarik ez litzateke, ez baitago loturarik kontratatu beharreko zerbitzuaren eta erakunde horrek prestaziotik kanpoko partikularrekin egin ditzakeen balizko etxegabetzeen artean.

.....

# 5. Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak arautzen ditu 202. artikuluan:

## 202. artikulua. Izaera sozial, etiko edo ingurumenekoa duten kontratuak edo bestelako izaera duten kontratuak egikaritzeko baldintza bereziak.

1. Kontratazio-organoek zilegi izango dute baldintza bereziak ezartzea kontratua egikaritzeko, baldin eta baldintza horiek lotuta badaude kontratuaren objektuarekin 145. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ez badira zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarri badira eta hala lizitazio-iragarkian nola baldintza-agirietan adierazten badira.

Beti ere, nahitaezkoa izango da hurrengo apartatuan zerrendatzen diren exekuzio-baldintza berezietako bat gutxienez ere ezartzea administrazio-klausula partikularren agirian.

[...]

2. Exekuzio-baldintza horiek, bereziki, kontsiderazio ekonomikoei buruzkoak, berrikuntzari edo ingurumenari lotuak edo kontsiderazio sozialei buruzkoak izan ahalko dira.

Zehazki, honako helburu hauek erdiesteko kontsiderazioak ezarri ahalko dira ingurumen-arloan: berotegi-efektuko gasen igorpenak murriztea –horrekin Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 88. artikuluan ezarritako helburua betetzen lagunduko da–; kontratua egikarituta ukiturik gerta daitezkeen ingurumen-balioak mantentzea edo hobetzea; uraren kudeaketa jasangarriagoa izatea; energia berriztagarrien erabilera sustatzea; produktu-birziklatzea eta ontzi berrerabilgarrien erabilera indartzea, edo solteko produktu-banaketari eta ekoizpen ekologikoari bultzada ematea.

Kontsiderazio sozialak nahiz enpleguari buruzkoak, besteak beste, honako helburu hauetakoren batekin ezarri ahalko dira: desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan aitorturiko eskubideak gauzatzea; legeria nazionalak exijitzen duen baino desgaitu kopuru handiagoa kontratatzea; lan-merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dauzkaten pertsonen enplegua sustatzea laneratze-enpresen bitartez, batez ere desgaitasuna duten

+



edo gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonena; merkatu horretan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzea, lanean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten neurrien aplikazioa erraztuz; emakumeek lan-merkatuan parte-hartze handiagoa izan dezaten erraztea, bai eta lanaren eta familiaren uztartzea erraztea ere; langabezia borrokatzea, batez ere gazteena, emakumeena eta iraupen luzekoa; lantokian prestakuntza eman dadin sustatzea; lantokian segurtasuna eta osasunaren babesa bermatzea, bai eta aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialak eta lurralde-mailakoak betetzen direla bermatzea ere; laneko istripuak saihesteko neurriak hartzea; Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 145. artikuluan definitzen den enplegu-estrategia koordinatua aipatuz ezartzen diren bestelako helburu batzuk; edo oinarrizko lan-eskubideen errespetua bermatzea ekoizpen-katean zehar, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak bete daitezen exijituz, barnean harturik garapen-bidean dauden herrialdeetako ekoizle txikiei mesede egitearen aldeko kontsiderazioak, haiekin aldekoak dituzten merkataritza-harremanak edukitzekoak, nola baitira ekoizleei gutxieneko prezio bat ordaintzea eta sari bat ematea edo merkataritza-kate osoan gardentasun eta trazabilitate handiagoa egotea.

3. Baldintza-agiriekin zigorak ezarri ahalko dituzte, 192. artikuluan 1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera, kontratua egikaritzeko baldintza bereziak urratzen direnerako, edo kontratuko funtsezko betebehartzat jo ahalko du baldintza bereziok betetzea, 211. artikuluan f) letran ezarritako ondorioetarako. Baldintza horiek ez betetzea ez bada kontratua suntsiarazteko kausatzat tipifikatzen, ez-betetze hori arau-hauste larritzat jo ahalko da baldintza-agirietan, erregelamenduz zehaztutako moduan, 71. artikuluan 2. apartatuko c) letran ezarritako ondorioetarako.

4. Kontratuaren parte diren exekuzio-baldintza berezi guztiak orobat exijituko zaizkie kontratua egikaritzeko parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

Egikaritze-baldintza berezietan buruzko azterketa egingo dugu labur-labur ikuspegi juridiko eta praktiko batetik:

- **Izaera soziala, etikoa eta ingurumekoa duten kontratuak egikaritzeko baldintza bereziak txertatzeko aukerak eta legezkotasunak ez dute inolako eragozpen juridikorik onartzen, eta SPKLk berriaz nabarmentzen eta babesten ditu.**
- Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak enpresa lizitatzailerik guztiek proposamenak aurkeztean inplizituki beren gain hartzen dituzten **benetako betebeharrak dira**, eta enpresa esleipendunak nahitaez bete beharko ditu kontratua emateko unean.

- 
- › Esleipen irizpideekin gertatzen den bezala, SPKLk **gaiaren arabera zerrenda luze** eta eredugarria eskaintzen du, zabaldu eta moldatu daitekeena.
  - › Berriz ere aipatzen da egikaritze-baldintza bereziek "**kontratuaren objektuari lotuta egon behar dutela, 145. artikuluan xedatutakoaren ildotik**". Hau da, ez da kontratuaren objektuarekin lotura zuzena eskatzen; aitzitik, kontratuaren prestazioarekin berarekin lotura izan behar du.
  - › Nabarmendu behar da **nahitaez adierazi behar dela, gutxienez, egikaritze-baldintza berezi bat**.
  - › Nahitaezkoa dela kontuan hartuta, **zuhurtasun- eta progresibitate-irizpideen araberatik aplikatzea** aholkatzen dugu, baldintza-agirietan kontratuaren ezaugarriei eta merkatuan dagoen eskaintzari dagokienez neurritz kanpoko egikaritze-baldintza berezirik sar ez dadin. Eta gehiegikeria kritikatu daitekeen bezala, motz geratzea ere ez litzateke logikoa.
  - › **Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak (nahitaez bete beharrekoak) eta esleipen irizpideak (borondatez onartzekoak) bateragarriak eta guztiz sinergikoak dira**. Kontua ez da beti batzuen edo besteen artean aukeratzea, baizik eta kasu batzuetan biak sartzea komenigarria izango dela. Adibidez, behartu egin behar da (egikaritze-baldintza) kontratua egikaritzeko desgaitasuna duen pertsona bat kontratatzea, eta baloratu behar dira (esleipen irizpidea) desgaitasuna duten bi pertsona edo gehiago kontratatzeko konpromisoa hartzen duten enpresak.
  - › Era berean, **gida honetan esleipen irizpide gisa planteatu diren irizpideetako batzuk egikaritze-baldintza berezi gisa sar litezke** kontratazio organoak uste badu alderdi horiek nahitaezkoak izan behar dutela eta ez borondatezkoak. Adibidez, ezar daiteke finantza etikoei buruzko sentsibilizazio ekintzak gauzatzea nahitaezkoa izatea eta ez borondatezkoa (baloragarria), edo sektoreko hitzarmen kolektiboa aplikatzea derrigorrezkoa izatea eta ez soilik ebaluagarria.
  - › Azken auzi horri eutsiz, uste dugu ez dela beharrezkoa aurreko puntuan esleipen irizpide gisa planteatutako klausula guztiak berriro errepikatzea; aitzitik, **nahikoa izango da haien edukiak eta idazketak hartzea egikaritze-baldintza berezi (bete-behar) gisa sartzeko, komenigarria dela ikusten denean**.

## **APLIKATZEKO PROPOSAMENA: KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK**

### **Justizia eta Gardentasun Fiskalari buruzko klausula**

- 1.** Kontratuaren prestazioaren esparruan, enpresa esleipendunak saiheste- eta ihes-fiskala ekiditeko konpromisoa hartu beharko du, bai eta kontratu horren ondorioz errenten tributazio egokia bermatzeko konpromisoa ere.
  
- 2.** Egikaritze-baldintza berezi hau betez, enpresa esleipendunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, non:
  - a)** Adierazten duen kontratutik eratorritako errenta guztiak PFEZren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren edo sozietateen gaineko zergaren aitopenetan sartzeko konpromisoa, kasuaren arabera.
  - b)** Adierazten duen enpresak, bere kabuz edo lotutako erakundeen bidez (azaroaren 27ko 27/2014 Legeak, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, 18.2 artikuluan ezarritakoaren arabera), kontratu honetatik eratorritako errentak ez dituela bideratzen zerga paradisuetan eragiketak egitera zerga-aurrezkoa lortzeko (iruzur fiskala prebenitzeko neurriei buruzko azaroaren 29ko 36/2006 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren arabera). Edo bestela, enpresak frogatu beharko du zerga paradisuetat jotzen den lurralde batetik lan egitea zerga-aurrezkiaz bestelako baliozko arrazoi ekonomikei erantzuten diela.

# 6. Kontrolatzeko eta egiaztatzeko sistemak

Gure ustez, klausula sozial, etiko eta ingurumenekoak betetzen direla egiaztatzeko fasea garrantzitsuena da kontratazio publiko arduratsuaren prozesu osoan.

Egia da gero eta Administrazio publiko gehiagok klausula sozialak eta ingurumenekoak txertatzen dituztela bere baldintza-agirietan, baina egia da ere zati txiki batek baino ez duela egiaztatzen eta frogatzen enpresa esleipendunek klausula horiek behar bezala betetzen ote dituzten.

Zailtasun honetatik abiatuta, **kontrolatzeko eta egiaztatzeko sistema erraz eta eraginkor bat proposatzen dugu, kontratazio-teknikariei lana izugarri errazteko balio erantsia duena. Honako hau litzateke bere laburpena:**

1. Baldintza-agiriei klausula objektiboak eransten zaizkie balio-judizioak saihesteko, eta horrela kontratazio-mahaiek errazago ebaluatzen dituzte irizpide sozialak, etikoak eta ingurumenekoak.
2. Klausula etiko eta gizarte- eta ingurumen-klausula bakoitzarekin batera dagoen egiaztatzaile elkartua aurkezten da, eta horrek betetze maila kontrolatzeko eta frogatzeko sistema estandarizatu bat ematen du. Sistema horren deskribapena edo hitzez hitzezko testua beti sartu beharko da baldintza-agirietan bertan.
3. Egiaztatzaile elkartu hauek dokumentazio espezifiko bat aurkeztea eskatzen dute. Dokumentazio honek aukera ematen dio kontratuaren arduradunari klausula bakoitza benetan betetzen den modu erraz batean egiaztatzeko; izan ere, dokumentazioa urtean behin edo bitan aztertzea eta haren edukia esleipendunak bere gain hartutako betebeharrekin alderatzea baino ez da egin behar. Hau da, esleipen irizpide edo egikaritze-baldintza berezi ororekin batera, klausula horiek betetzen direla nola frogatuko den zehatz eta objektiboki adierazten duen testu bat aurkeztu behar da.
4. Frogaren zama enpresa esleipendunak hartzen du eta, gainera, enpresa horrentzat, beti eta edozein kasutan, gizarte- eta ingurumen-klausulak betetzen direla frogatzeko betebeharra zehazten da, eta baldintza-agirietan zehaztutako dokumentazio estandarizatuaren arabera egiteko betebeharra. Honek erraztu egingo du gero aztertzea eta frogatzea.

5. Azkenik, baldintza-agirietan ezartzen da klausula sozialak eta gizarte- eta ingurumen-klausulak funtsezko kontratuzko betebeharrak direla, eta horiek ez betetzeak zehapen ekonomikoak ekarriko dituela berekin, eta kontratua deuseztatzea, kontratatzeke debekua ezartzea edo ordainketa geldiaraztea ere eragin lezakeela.

Sistema hau aplikatuz, erabateko gardentasuna eta tratu-berdintasuna ematen zaio prozedurari; izan ere, enpresa lizitatzailer guztiek alde aurretik dakite zer dokumentazio aurkeztu beharko duten esleipendun suertatuz gero. Horretarako, funtsezkoa da baldintza-agirietan prozedura sistematiko eta homogeen bat ezartzea; horrela, mezu laukoitz bat bidaltzen diegu lizitatzaileriei:

- Klausulak modu eraginkorrean bete behar dira.
- Esleipendunari dagokio betetzen direla frogatzea, aurretik zehaztutako dokumentazioa aurkeztuz.
- Behar bezala egikaritzen direla egiaztatuko da, kontrolatzeko funtzioa berariaz esleituz.
- Ez betetzeak ondorio larriak ekarriko ditu.

Beraz, administrazio-klausula partikularren agirietan esleipen irizpide bakoitzak eta izaera sozial eta ingurumeneko egikaritze-baldintza bakoitzak egiaztatzaile elkartu bat izango du. Egiaztatzaile horrek esleipendunak nahitaz aurkeztu behar duen dokumentazioa adieraziko du, irizpideak eta baldintzak betetzen dituela frogatzeko, bai eta noiz aurkeztu behar duen ere.

Ondorioz, baldintza-agirietan kontrolatzeko eta egiaztatzeko sistemari buruzko klausula orokor bat sartzea proposatzen dugu, eta, horretarako, honako idazketa hau proposatzen dugu:

#### **APLIKATZEKO PROPOSAMENA: KONTROLATZEKO ETA BETETZEN DELA FROGATZEKO SISTEMA**

1. Enpresa kontratista, kontratua erabat gauzatzearen arduradun bakarra den aldetik, bere gain hartu dituen esleipen irizpide guztiak eta gizarte- eta ingurumen-arloan kontratua egikaritzeko baldintza berezi guztiak betetzera behartuta dago.
2. Enpresa kontratistak modu eraginkorrean frogatu beharko du kontratua behar bezala eman dela bere proposamen teknikoan hitzartutako esleipen irizpideei dagokienez, bai eta izaera sozial eta ingurumeneko egikaritze-baldintzei dagokienez ere. Horretarako, baldintza-agiri honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du dagokion unean, betetzen dela egiaztatzeko.



3. Esleipen irizpideak eta izaera sozialeko eta ingurumeneko egikaritze-baldintza bereziak funtsezko kontratuzko betebehartzat jotzen dira. Horiek ez betetzea oso larritzat joko da, eta, betetzen ez badira, kontratazio-organoak honako aukera hauek izango ditu:

- Kontratua suntsiaraztea ez-betetze errudunagatik, eta horrek berekin ekar lezake edozein lizitazio prozedura publikotan lizitatzeko desgai-kuntza bi urtez.
- Kontratua egikaritzen jarraitzea baina zigor bat ezartzea, kontratazio-organoak larritasunaren arabera kalkulatu beharko duena eta gehenez ere kontratuaren prezioaren % 10era artekoa izan daitekeena.
- Kontratuen luzapena ez adostea, enpresa esleipendunak kontratua egikaritzeko baldintza bereziak edo esleipenerako irizpide sozialak larriki bete ez balitu.

4. Kontratuaren arduradunak edo jarraipen-unitateak aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu beharko du, eta ebaluatu esleipen irizpideekiko eta kontratistak bere gain hartutako izaera sozial eta ingurumeneko egikaritze-baldintza bereziekiko egokitasuna eta adostasuna. Bete ezean, jakinarazi beharko du eta, hala badagokio, zigorrak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatu beharko du.

Gainera, klausula bakoitzerako egiaztatzaile bat ezartzea proposatzen dugu. Horrela, baldintza-agirietan bertan zehazki eta alde zuzenetik adieraziko da enpresa esleipendunak zer dokumentazio aurkeztu beharko duen klausula bakoitza betetzen duela frogatzeko.

## Gardentasun eta justizia fiskalari buruzko klausularen egiaztatzailea

1. Enpresa esleipendunak urtero erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, kontratua saiheste- eta ihes-fiskalik egin gabe egikaritu duela frogatuz, eta kontratutik eratorritako errentak behar bezala tributatu dituela bermatuz.
2. Enpresa esleipendunak espresuki baimenduko dio kontratazio-organoari Zerga Administrazioaren esku dauden bere datu fiskaletan sartzea, abenduaren 17ko 58/2003 Legeak, Zergen Lege Orokorrak, 95.1.k) artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Enpresa esleipenduna talde bateko kide bada, eta talde horretako erakunderen batek informazioa herrialdez herrialde aurkezteko betebeharra badu 634/2015 Errege Dekretuak, uztailaren 10ekoak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregela-mendua onartzen duenak, 13. eta 14. artikuluetan aurreikusitako baldintzetan, enpresa esleipendunak kontratua egikaritu bitartean aurkeztutako adierazpenen kopia bat emango dio kontratazio-organoari, horietako bakoitza Zerga Administrazioaren aurrean aurkeztu eta ondorengo hamar egunetan.
4. Enpresa esleipenduna behartuta badago paradisuekin edo zerga paradisu-tzat jotzen diren lurraldeekin zerikusia duten eragiketa eta egoeren edo lotutako eragiketen informazio-aitorpena aurkeztera, abuztuaren 28ko HFP/816/2017 Aginduaren arabera, enpresa esleipendunak kontratua egikaritu bitartean aurkeztutako adierazpenen kopia bat emango dio kontratazio-organoari, horietako bakoitza Zerga Administrazioaren aurrean aurkeztu eta ondorengo hamar egunetan.
5. Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 157.5 artikuluan arabera, kontratazio-organoak txostenak eskatu ahal izango dizkie berriaz zerga-sistema justua lortzeko lan egiten duten erakunde sozialei, egikaritze-baldintza berezi hau egiaztatzeko.
6. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 133.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako, lizitatuzaileek ezin izango dituzte erantzukizunpeko adierazpenak konfidentzialtzat jo, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira kontratazio-atarian, interes legitimoa duen edozein pertsona fisikok edo juridikok bere egiazkotasunari buruz alegatu ahal izan dezan, 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## Etxegabetzeen aurkako klausularen egiaztatzailea

1. Behin-behineko esleipenduna den enpresak, kontratua formalizatu aurretik, ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka-bermedun zorrak modu bideragarrian berregituratzeko Jardunbide Egokien Kodeari atxiki beharko zaio. Kode hori martxoaren 17ko 5/2017 Errege Lege Dekretuaren arabera ezarri zen, honako hauek aldatzen dituena: 6/2012 Errege Lege Dekretua, martxoaren 9koa, baliabiderik ez duten hipoteka-zordunak babesteko premiazko neurriei buruzkoa; eta 1/2013 Legea, maiatzaren 14koa, hipoteka-zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurriei buruzkoa. Atxikitzen ez bada, behar bezala justifikatu beharko du zergatia eta zinpeko aitortpena aurkeztu beharko du, adieraziz ez duela inolako etxegabetzerik edo lehen etxebizitzaren hipoteka-betearazpenik egin azken hiru urteetan.

2. Enpresa esleipendunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du urtero, fede oneko zordunen kasuan lehen etxebizitzaren hipoteka-betearazpenik egin ez duela frogatzeko, edo, ezinezkoa bada, gutxienez bost urterako bizi-tegi-alternatiba prezio eskuragarrian ziurtatu duela frogatzeko.
3. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 133.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako, lizitatzailleek ezin izango dituzte erantzukizunpeko adierazpenak konfidentzialtzat jo, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira kontratazio-atarian, interes legitimoa duen edozein pertsona fisikok edo juridikok bere egiazkotasunari buruz alegatu ahal izan dezan, 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## Banku etikoko klausularen egiaztatzailea

1. Behin-behineko esleipenduna den enpresak, kontratua formalizatu aurretik, partaide dela frogatzen duen ziurtapen ofiziala aurkeztu beharko du, edo bestela, zuzenbidean onartutako beste edozein frogabideren bidez frogatu beharko du banku etikoaren edozein elkarte edo fundazioko kide izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.
2. Enpresa esleipendunak urtero aurkeztu beharko du ziurtapen edo egiaztagir hori, behar bezala eguneraturik.

## Erantzukizun soziala ziurtatzeko klausularen egiaztatzailea

1. Behin-behineko esleipenduna den enpresak, kontratua formalizatu aurretik, frogatzen duen ziurtapen ofiziala aurkeztu beharko du, edo bestela, zuzenbidean onartutako beste edozein frogabideren bidez frogatu beharko du erantzukizun sozial korporatiboaren ziurtapena lortzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.
2. Enpresa esleipendunak urtero aurkeztu beharko du ziurtapen edo egiaztagir hori, behar bezala eguneraturik.



## Gizarte- edo ingurumen-erantzukizuneko klausulen egiaztatzaileak

1-8 azpi-irizpideei dagokien hurrenkeran:

1. Sektoreko hitzarmena zorrotz betetzeari dagokionez, enpresa esleipendunak honako hauek aurkeztu beharko ditu kontratua formalizatu eta bi hilabeteko epean:
  - Kontratua egikaritzeari atxikita dagoen pertsona kopuruaren eta zerrenda nominalaren zinpeko aitortpena.
  - Alta egoeran dauden langileen txostena, Gizarte Segurantzak emana, eta Gizarte Segurantzak emandako txosten ziurtatua, langileen eta kotizazio-oinarrien berri ematen duena.
  - Hala badagokio, kontratazio-organoak enpresaren TC1 eta TC2 agirien kopia bat eskatu ahal izango du, bai eta lan kontratuen kopia bat Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eredu estandarizatuan.
2. Kontratua egikaritzeko lan merkatuan beharrean dauden pertsonak kontratazeari dagokionez, enpresa esleipendunak honako hauek aurkeztu beharko ditu kontratua formalizatzen denetik hilabeteko epean edo kontratazioak egiten direnetik hilabeteko epean:
  - Kontratututako desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen zerrenda, sexuaren arabera bereizita, eta kontratuen hasiera- eta amaiera-datak eta lanaldia zehaztuta.
  - Lan kontratuen kopia.
  - Desgaitasun-ziurtagiria, edo gizarte-zerbitzu publikoen edo gizarteratzeko eta laneratzeko helburua duen erakunde baten ziurtagiria, eskatutako profilak frogatzen dituen (aldeztatik baimena izanda eta Datu Pertsonalak Babesteko Legea betez).
3. Enplegu Zentro Bereziak edota Gizarteratze eta Laneratze Enpresak azpikontratatzeari dagokionez, enpresa esleipendunak kontratu zibilaren edo merkataritzako kontratuaren kopia bat aurkeztu beharko du, edo faktura bat, non azpikontratututako Enplegu Zentro Berezia edo Gizarteratze eta Laneratze Enpresa zein den adierazten den, eta kontzeptu xehatua, zenbateko ekonomikoa eta egikaritze-datak zehazten diren.

4. Kontratu mugagabea duten pertsonen ehuneko bat kontratatzeko konpromisoari dagokionez, enpresa esleipendunak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

- Kontratua egikaritzeari atxikita dagoen pertsona kopuruaren eta zerrenda nominalaren zinpeko aitortpena.
- Alta egoeran dauden langileen txostena, Gizarte Segurantzak emana, eta Gizarte Segurantzak emandako txosten ziurtatua, langileen eta kontratu-tipologiaren berri ematen duena.
- Hala badagokio, kontratazio-organoak lan kontratuen kopia bat eskatu ahaliko du Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eredu estandarizatuan.

5. Langileen % 50 gutxienez emakumeak izango direlako konpromisoari dagokionez:

- Enpresa esleipendunak, kontratua formalizatzen denetik hilabeteko epean, edo kontratazioak egiten direnetik hilabeteko epean, emakume kontratatuen zerrenda nominala aurkeztu beharko du, kontratuen hasiera- eta amaiera-data eta lanaldia zehaztuta eta, hala badagokio, lanbide-kategoria; eta lan kontratuen kopia ere.
- Kontratua egikaritzeko fasean, urtero, enpresa esleipendunak alta egoeran dauden langileen txostena eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiria aurkeztu beharko ditu, enpresako langileen zerrenda osoa eta nominala emanez.

6. Berdintasun Plan bat ezartzeari dagokionez, urtero memoria bat aurkeztu beharko da, teknikari eskudun batek edo langileen legezko ordezkariak sinatuta. Memoria horretan, hartutako berdintasun-neurriak, kronograma, aurrekontua, esleitutako eginkizunak edo erantzukizunak, eta onuradunak jasoko dira.

7. Finantza etikoei edo finantza-produktuen alderdi etiko eta arduratsuei buruz gizartea informatzeko eta sentibilizatzeko ekintzak egiteko konpromisoa dela eta, memoria bat aurkeztu beharko da, eta bertan honako hauek jasoko dira: egindako ekintzak, horien eragina eta esleitutako aurrekontua, bai eta bertaraututako pertsonak edo onuradunak ere.

8. Kontratua egikaritzeari atxikiko zaizkion langileek finantza etiko eta ardurasuetan gutxieneko prestakuntza dutela frogatzeko, zentro homologatu batek edo erakunde eskudun eta baimendu batek emandako prestakuntzaren ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da.